



Esp.kodea: 2020HORD0001

Gaia: ARRASATEKO 1/2021 UDAL
ORDENANTZA, APARKATZE ETA IGAROTZE
MUGATUKO SISTEMA ARAUTZEN DUENA
(TAO SISTEMA)
ORDENANZA MUNICIPAL 1/2021 DE
MONDRAGÓN, REGULADORA DEL SISTEMA
DE ESTACIONAMIENTO Y TRÁNSITO
LIMITADOS (TAO SISTEMA).
Hasiera eguna: 2020/12/01

ALKATETZAREN ERABAKIA
N22/00272

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 25.artikuluaren xedatutakoaren arabera, udalerrriak bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen baitan, bere bizilagunen beharrak eta nahiak asetzen lagunduko dituen jarduerak sustatu behar ditu. Era berean, Udalek dute eskumenen barruan erregelamenduak egin eta moldatzeko eskumena.

Udal Plenoak 2021eko martxoaren 2an egindako bilkuran erabaki zuen behin betiko onartzea Arrasateko 1/2021 Udal Ordenantza, aparkatze eta igarotze mugatuko sistema arautzen duena (TAO sistema)".

2021eko apirilaren 21ean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 71 zenbakian, aparkatzeko eta igarotzeko sistema arautzen duen Arrasateko 1/2021 udal-ordenantzaren (TAO sistema) behin betiko onarpena argitaratu zen.

2021eko urriaren 18ko N21/01039 alkatetza erabakiaren bidez, zera adierazi zen:

- *“Arrasateko 1/2021 Udal Ordenantza hau, aparkatze eta igarotze mugatuen sistema arautzen duena (TAO sistema)”, indarrean sartzearen etendura kentzea, N21/01039 Alkatetzaren ebazpen honen bidez*
- *Arrasateko 1/2021 Udal Ordenantza hau 2021eko abenduaren 4an indarrean hartzea, aparkatze eta igarotze sistema mugatuak (TAO sistema) arautzen dituen.*

| | | | | |
|--|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | N22/00272 | Udala | ARRASATE/MONDRAGON | |
| Data | 2022/mar./10 | CUDO | 000.0055.AAAAN9LW.L.vVHX | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAN9LWL.vVHX | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp.kodea: 2020HORD0001

Gaia: ARRASATEKO 1/2021 UDAL
ORDENANTZA, APARKATZE ETA IGAROTZE
MUGATUKO SISTEMA ARAUTZEN DUENA
(TAO SISTEMA)
ORDENANZA MUNICIPAL 1/2021 DE
MONDRAGÓN, REGULADORA DEL SISTEMA
DE ESTACIONAMIENTO Y TRÁNSITO
LIMITADOS (TAO SISTEMA).
Hasiera eguna: 2020/12/01

- *Iragarki bidez argitaratzea GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN bai etendura kentzea eta baita ordenantza hau indarrean sartzeko data ere.*

Ordenantza indarrean sartu zenean, epe batera aldaketak egin beharko zirela aurreikusi zen; izan ere, beharrezana ikusi ostean, aldaketa puntualak egotea ohiko kontua izaten da. Honakoa egin ostean, gero eta gehiago etorriko dira, sistema hau ezarrita dagoen hiri eta herrietan gertatzen den antzera. Honela ba, aipatutako aldaketa hori ahalik eta eraginkorra izan zedin, informazioa biltzeko bide desberdinak abiarazi zituen Udalak, bai eskuragarri dituen zerbitzu desberdinen bidez -TAO BULEGOA, kexa biltzeko sistema, BAZ...-, bai komunikabide desberdinek argitaratutako informazioa baliatuz. Bestalde, auzo-alkate eta enpresekin harremanak izan ditu.

Informazio horrekin guztiarekin, eta, herritar-kolektibo desberdinen ekarpenak eta iradokizunak jaso eta aztertu eta ostean, beharrezana ikusteko nahikoa datu eskuratu ditu Udalak.

Bestalde, Administrazio Eridearen prozedura arautzen duen 39/2015 legeko 133.1.artikuluak herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea xedatzen du. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- Arauren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

| | | | | |
|--|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | N22/00272 | Udala | ARRASATE/MONDRAGON | |
| Data | 2022/mar./10 | CUDO | 000.0055.AAAAN9LW.L.vVHX | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAN9LWL.vVHX | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |



Esp.kodea: 2020HORD0001

Gaia: ARRASATEKO 1/2021 UDAL
ORDENANTZA, APARKATZE ETA IGAROTZE
MUGATUKO SISTEMA ARAUTZEN DUENA
(TAO SISTEMA)
ORDENANZA MUNICIPAL 1/2021 DE
MONDRAGÓN, REGULADORA DEL SISTEMA
DE ESTACIONAMIENTO Y TRÁNSITO
LIMITADOS (TAO SISTEMA).
Hasiera eguna: 2020/12/01

Dena dela, 133.artikuluak xedatutakoa bete behar duenez Udalak eta ekarpen gehiago jasotzeko asmoz, Kontsulta publikoko epe bat irekitzea beharrezkoa da. Esan bezala, Udala ordenantzaren inguruko iritziak bilduta daudenez, ekarpen eta iritzi gehiago jasotzeko beste **7 eguneko** epea zabaltzea egoki ikusi da.

Goian aipatutako artikulua horri erreparatuz gero, kontsulta publikoko epe bat zabaldu behar da; dena dela, ez du epe iraupena zehazten. Hori horrela izanik, Udalak izango du irizpide hori finkatzeko ahalmena.

Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe **ERABAKI DUT:**

ONARTZEA, 39/2015 Legeak 133.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, dagokion kontsulta publikoa egitea. Aurreko eraginetarako dagokion iragarkia jarriko da webgunean eta kontsulta publikoan herritarrek, erakundeek eta elkarrekin parte hartu ahal izango dute, beren ekarpenak webgunea web-atariaren bidez bidalita. Era berean, beren iritziak helarazi ahal izango dituzte, **2022ko martxoaren 22ra arte.**

Alkatea

| | | | | |
|--|---|--------------|--------------------------|--|
| Kodea | N22/00272 | Udala | ARRASATE/MONDRAGON | |
| Data | 2022/mar./10 | CUDO | 000.0055.AAAAN9LW.L.vVHX | |
| URL | https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAN9LWL.vVHX | | | |
| Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu | | | | |